

Itunpeko irakaskuntza: Gasteizko Legebiltzarraren aurrean elkarretaratzea.

Abenduak 17an, asteazkenean, ELA, LAB eta STEE-EILASeko delegatuok, Gasteizen, Eusko Legebiltzarraren aurrean elkarretaratu egin gara. Elkarretaratzea burutzen dugun bitartean sektoreko eskaerak jasotzen dituen emendakina itxurako interpelazioa legebiltzar talde guztiei aurkeztu diegu.

ELA, LAB eta STEE-EILASek Itunpeko Irakaskuntzako langileen lan baldintzen homologazio akordio baten negoziazioa eskatzen dugu. Helburua, irakasleak eta irakasleak ez direnentzat, %100ren homologazioa da. Horretarako, 2008-2009. urteetako negoziazio kolektiborako oinarritzko lehentasun hauek finkatu ditugu: Administrazioaren menpeko langileekiko irakasleen oinarritzko ordainsarien %95aren muga gainditzea, irakasleen eskola orduak jaistea eta irakaslea ez den eta Haur Hezkuntzako lehen zikloko pertsonalaren soldata eta lan baldintzen homologazioari heltzea.

Hiru sindikatuok uste dugu Administrazioaren beharra dagoela helburu hauek lortzeko. Eta finantziario eredu berria ezartzerakoan, ikastetxeek derrigorrez bete behar dituzten baldintzak eta hauek eremu publikotik kontrolatzeko beharrezkoak liratekeen tresnak argi eta garbi geratu behar direla. Egindako mobilizazioak egin arren, bi greba barne, Administrazioak alde soziala garen sindikatuok baztertu egin gaitu. Gauden egoera aztertuta eta patronalen eta Administrazioaren jarrera ikusita erantzun sendoa eman behar dugulakoan gaude. Aurrerakuntzak ematen ez badira, 2009. urte hasieran mobilizazio berriak deitu beharko ditugu.

- Ekimen Sozialeko ikastetxeetako eta ikastoletako irakasleak eta irakasleak ez diren langileen homologazioaren alde
- 2008 eta 2009 urteetako irakasleen ordainsaria %95aren muga gainditzearen alde, baita ere ez-irakasleen eta Haur Hezkuntzako 1. zikloko langileen soldatak homologatzeko igoerak.
- Eskola orduen gutxitzearen alde
- Ratioen eta beste lan baldintzen hobekuntzen alde

Eta batez ere:

- Itunperako finantziario eredu berri batek, sektoreko langileen interesak baztertuak ez izateko, ikastetxearen titularitatearen arabera

